



ra euren etxeetan, agian etxeko eta egunerako zereginak egitera ohituta daudelako».

Hiru gizon eta bikote bat ere artatu dituzte kanpainari esker. «Nahiz eta bakarrik ez bizi, kanpaina bakarrik sentitzen direnei ere zuzenduta dagoela aipatu beharra dago», azpimarratu du Bittmanek, kasu batzuetan adinekoak senideekin joan direla informazio eske nabarmenduz. Izan ere, bakarrik bizi diren adineko batzuek familia dute, eta senideekin hurbiltzen dira Gi-

**Urriko datuen arabera, Gasteizko Udalaren webguneak 965 bisita jaso zituen kanpainako informazioa eskuratzeko. Horrez gain, 36 lagunek 010 telefono zenbakira deitu zuten**

**Datorren hilabeteen kanpainaren ebaluazioa egingo dute. Parte hartu duten pertsonak nolakoak diren eta zer-nolako zerbitzuak eskatu dituzten aztertuko dute**



Jessica Bittman, Gasteizko Udaleko langilea. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

zarte Zerbitzuetara. «Ez dut uste familien babesik ez dutenik, baina kasu askotan seme-alabek kanpoan egiten dute lan. Senideak hurbil edukitzea ez da beti nahikoa bakarrik ez sentitzeko. Senideekin bizi eta bakarrik senti zaitezke», nabarmendu du udal langileak.

#### ETORKIZUNeko ERRONKAK

Datorren hilabeteen kanpainaren ebaluazioa egingo dute Gasteizko Udaleko teknikariek. «Kanpainan parte hartu duten pertsonak nolakoak diren ikusi beharko dugu, eta zer-nolako zerbitzuak eskatu dituzten. Eta aztertu beharko dugu ere nolakoak diren eskaintzen ditugun zerbitzuak», adierazi du.

Gurutze Gorriarekin sinatutako akordioari esker eskaintzen dituzten zerbitzuen publizitatea egiteko asmoa ere badutela azaldu du Bittmanek, adineko askok ez baitituzte ezagutzen Udalak martxan jarritako laguntza programak. Gurutze Gorriko boluntarioek etxeko etxeko bisitak egingo dituzte, oinarritzko gizarte zerbitzuetan adinekoek eskura dituzten zerbitzuak azaltzeko. «Eskaintza garatzeko lan handia dugu oraindik», ohartarazi du. Hori bai, lanean jarraitu dute adinekoak hobe senti daitezen, bakardadeak ondorio fisiko larriak baititu.

## GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO ESKUMENAK ESKUALDATZEKO AKORDIOAREN ONDORIOAK

Gasteizko Udalak bakarrik bizi diren adinekoei bidalitako liburuxka aldatu egin beharko dute etorkizunean. Izan ere, pasa den hilean Ramiro Gonzalez Arabako ahalzun nagusiak eta Gorka Urtaran Gasteizko alkateak akordio bat izenpetu zuten bi erakundeek gizarte zerbitzuen arloko eskumenak eskualda ditzaten. Foru Aldundiak azaldu zuenez, lankidetzarako esparru hitzarmen horrek iazko abenduaren 26an indarrean jarri zen Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuari erantzuten dio. Ildo horretan, hemendik aurrera, honako zerbitzu hauek Gasteizko Udalaren eskumenekoak izango dira: etxeko etxeko laguntza eta zaintzaileentzako laguntza. Hori horrela, Udalak bere gain hartuko ditu bi erakundeek Ascudean mendeko pertsonen zaintzaileen elkartearekin izenpetuta dituzten lankidetzak hitzarmenak.

Arabako Foru Aldundiak, berriz, honako zerbitzu hauen ardura izango du: adineko mendeko pertsonen plazak San Prudentzio egoitzan; babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeentzako etxeak; gizartetik baztertuta bizi diren pertsonentzako egoitzak; Berehalako Harrera Zentroa, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta euren seme-alabentzako; Arreta Soziojuridiko eta Psikosozialeko Zerbitzua, emakumeen eta adingabeen aurkako tratatu txar matxista eta eraso sexual kasuetarako; Garraio Egokituko Zerbitzua; eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzua.

Jessica Bittman psikologoak dioenez, Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko teknikariak eskumen eskualdatzea herritarrei eragozpenak sortu gabe egiteko ari dira lanean. «Liburuxka berrargitaratu beharko dugu, zenbait zerbitzutan mendekostasun gradua duten adinekoek lehentasuna izango dutelako», azaldu du. Dena den, eskumenen eskualdatzea prozesu luzea izango da psikologoaren ustez: «Erabakiak hartu behar ditugu lehenik, eta, gero, trantsizio epe bat egongo da».